

### **BILBOK EKAINAREN 1etik 7ra OSPATUKO DU "ASTE BERDEA"**

#### **Hirigintza eta Ingurumen Saileko jarduera-egitarauan, alderdi ludikoa eta hezkuntza uztartuko dira**

Bilbon, 2009ko maiatzaren 27an. Ekainaren 1etik 7ra "Aste Berdea" ospatuko denez, Bilboko Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Sailak, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Udalsarea 21en laguntza, zenbait jarduera antolatu ditu, Bilboko eta inguruko ondare naturala jakitera emateko eta sentibilizatzeko. Programan bertan, alderdi ludikoa eta zabalkundea bateratuko dira, eta, horrez gain, ekainaren 5ean egingo den Ingurumenaren Munduko Eguneko ospakizunen esparruan ere badago kokatuta.

#### **BISITA GIDATUAK PAGASARRIRA (ekainak 1-6).**

Bi ibilbide prestatu dira, zailtasun handiagoko eta txikiagoko irizpideak kontuan hartuta, Bilboko biztanle guztiek hiribilduko mendi ospetsuenera igotzeko aukera izan dezaten.



Bi bisitaldietako elkargunea Buiako autobus-geltokia izango da. Bertara iristeko, badago garraio publikoa erabiltzerik (Bilbobus, 50. linea, Plaza Biribila - Buia).

Izena emateko, "010" telefonora deitu besterik ez dago. Horrez gain, bisita osoa euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera ere eskainiko da. Taldeek gidari-interprete bana eramango dute.

#### **➤ 1. IBILBIDEA: BUIA - BOLINTXU - SEBERETXE - BUIA.**

Zailtasun txikiko ibilbide biribila da, eta interes kulturala zein naturala du. Bisitaldian, honako hauexek egongo dira ikusgai: zenbait espezie, erriberako

basoko ekosistema, inguruko kareharrizko gailurrak... Horrez gain, Seberetxeko landa-gunea ere ikusi ahal izango da, bertan interes arkitektonikoko zenbait eraikin daude-eta (jauregia, baserriak, auzo-garbilekua...). Ibilbideak 2 ordu eta 30 minutu iraungo du, gutxi gorabehera.

➤ **2. IBILBIDEA: BUIA - BOLINTXU - UZKORTA - PAGASARRI - IGERTU - SAN JUSTO**

Zailtasun ertain-handiko ibilbide lineala da, interes naturala du, bertako paisaia zoragarria da eta ukitu historiko nahiz etnografikoak ere baditu. Ibilbidean, malda handiko tartekak egongo dira igotzean zein jaistean. Bertan, Pagasarriko paisaia nola bilakatu den ikusiko dugu. Ibilbideak 4 ordu eta 30 minutu iraungo du, gutxi gorabehera.

Eguraldiaren araberrako oinetako eta arropa egokiak ez ezik, ura eta jatekoren bat ere eraman beharko dituzte parte-hartzaileek.

**KONTSUMO TXIKIKO BONBILLEN BANAKETA**

Ekainaren 1etik 4ra, Bilboko Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Sailak kontsumo gutxiko 1.500 bonbilla banatuko ditu EEEren laguntzaz. Ekimen horrek herritarrak kontzientziatu nahi ditu energia arduraz kontsumitzeko neurrien onuren inguruan.

2009ko EKAINAREN 1etik 4ra, BILBON NON BANATUKO DIREN KONTSUMO TXIKIKO BONBILLAK		
	Goizez (11:00 - 13:00)	Arratsaldez (17:00 - 19:00)
Ekainak 1	Yohn Jauregia Udaltegia (Burtsa) Pilota 10 5. barrutia	
Ekainak 2	Uribarriko Barrutiko Udaltegia Iturriondo plaza (Zurbaranbarri) 2. barrutia	
Ekainak 3	Otxarkoagako Udaltegia Pau Casals 19 3. barrutia	Basurtoko Udaltegia Luis Briñas 18 8. barrutia
Ekainak 4	Rekaldeko Barrutiko Udaltegia Gordoniz 49 A eta B 7. barrutia	

## **"SEMANA VERDE-ASTE BERDEA" ZINEFORUMA**

Ekimen honek gure mendeko ingurumen-erronka handiaren inguruan sentsibilizatu eta informatu nahi ditu herritarrak. Zineforumeko saioak 19:00etatik aurrera egingo dira, Lan-Ekintzako ekitaldi-aretoan (Uribitarte pasealekua 3).

### **Ekainak 1, astelehena**

- 19:00-20:45. "Naturaleza Muerta" filma.

Gaia: presaren eraikuntzak naturan sortutako ondorioak.

### **Ekainak 2, asteartea**

- 19:00-20:00. "Reclaim power" dokumentala.

Gaia: energia nuklearra eta klima-aldaketa.

### **Ekainak 3, asteazkena**

- 19:00-20:00. "Yindabad" dokumentala.

Gaia: uraren gatazka Indian.

### **Ekainak 4, osteguna**

- 19:00-19:45. "Al calor de las chimeneas" dokumentala.
- 19:45-20:15. "Clima de esperanza" dokumentala.

Gaia: energia termikoa eta klima-aldaketa.

### **Ekainak 5, ostirala**

- 19:00-21:00. "Sueños del desierto" film luzea.

Gaia: basamortutzea.

## **PEDALOAK ITSASADARREAN**



Aste Berdean, pedaloek itsasadarra zeharkatuko dute, garbitasunaren zein hiriko komunikazio-bidearen ikuspegitik ibai-arteria hau suspertzen ari dela nabarmentzeko.

Hirigintza eta Ingurumen Sailak ekimen hau sustatuko du, Bilboko ikusmira desberdina eskaintzeko eta itsasadar

garbiak eskaini ditzakeen aukeren inguruan kontzientziatzeko. Pedaloak doakoak izango dira, eta ekainaren 1etik 7ra erabili ahal izango dira, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

## **KLIMA-ALDAKETAREN AURKAKO IDEIEN LEHIAKETA 2009**

Biok, Klima Aldaketaren aurkako Bilboko Bulegoak, lehiaketa antolatu du, klima-aldaketaren aurkako ideiak eta ekintzak saritzeko. Proiektuak eta izena emateko orria honelaxe bidali ahal izango dira:

- Posta elektronikoz, helbide honetara: [bio@ayto.bilbao.net](mailto:bio@ayto.bilbao.net).
- Ohiko postaz edo mezularitzaz: Bio, Klima Aldaketaren aurkako Bilboko Bulegoa (Colón de Larreategui 13, 4. esk. Bilbo)
- Zuzenean, Bion bertan.

Proiektuak aurkezteko azken eguna 2009ko uztailaren 15a izango da.

Kategoria bakoitzeko bi ideia onenek bizikleta irabaziko dute:

- Haurrak (12 urtera arte).
- Gazteak (13 eta 17 urte artean).
- Seniorrak (18 urtetik aurrera).

Lehiaketako irabazleen izenen berri emango da Bilboko Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Saileko Agenda 21en web orrian. Horrez gain, e-postaz edo telefonoz ere jakinaraziko zaie.

## **KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO INFORMAZIO-SAIOAK.**

Herritarrentzako hitzaldiak Klima Aldaketaren aurkako Bilboko Bulegoan egingo dira. Jardunaldi bakoitzean, fenomeno horrekin zerikusia duen gai bat aztertuko da. Hitzaldietara joateko, izena eman beharko da aldezturik: bulegoan, telefonoz (94 420 87 70) edo posta elektronikoz ([bio@ayto.bilbao.net](mailto:bio@ayto.bilbao.net)).

Hitzaldiak 12:30etik 13:30era eta 17:00etatik 18:00etara izango dira.

**ESKOLAKO AGENDA 21en OSOKO BILKURA (EKAINAK 5, INGURUMENAREN MUNDUKO EGUNA).**

Bost urtez jarraian, Bilboko Udalak eskolako osoko bilkura egingo du ekainaren 5ean, Ingurumenaren Munduko Egunean. Bertan, parte-hartzaileek udal-ordezkariei azalduko diete nolako konpromisoak eta eskaerak dituzten klima-aldaketaren aurka.

Osoko bilkura Eskolako Agenda 21 programaren barruan dago kokatuta, eta, bertan, ikastetxeek zentroko zein inguruko ingurumenaren kudeaketa aztertzen dute. Ikasturte honetan, 50 ikastetxetako 22.800 inguru ikasleak eztabaidatu eta hausnartu egin dute klima-aldaketari buruz.